

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2732

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 21ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, «Joxe Mari Korta» sariak ebazteko dena.

2011ko apirilaren 20ko Aginduaren bitartez, aldatu egin zen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko uztailaren 29ko Agindua, zeinarekin «Joxe Mari Korta» sariak arautzen diren (2009-08-10eko EHAA). Bada, agindu horretako zazpigarren artikuluan xedatutako kontuan izanik, eta ikusirik Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordearen 2012ko otsailaren 23ko Ebazpena (2012-03-16ko EHAA), zeinarekin argitara ematen baita 2012. ekitaldirako deialdia, eta ezaguturik 2012-03-27ko Aginduaz hartarako izendatutako epaimahai kalifikatzaileak egindako esleipen-proposamenak, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Epaimahaik egindako proposamena ikusirik honako hauei ematea 2012. ekitaldiko «Joxe Mari Korta» sariak:

Justo Ercilla Sagarminaga.

Jesús Hermosilla Bilbao.

Juan José Azcarate Morera.

Miguel Gandiaga Alberdi.

Miguel Lazpiur Lamariano.

2.— 2009ko uztailaren 29ko aipatu aginduaz ezarritakoarekin bat jasoko dute onuradunek goraipemena, aipamena eta errekonozimendu publikoa, hain justu ere hartarako deitutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren aurrean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 21a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.